

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko abenduaren 3ko bilera arruntean (4/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

8. Gaia.- Erabakia, 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkion Ekonomista kategoriako hautaprobaren deialdia onesteari buruzkoa.

"Lehenengoa.- Bat etorririk Gobernu Batzordearen 2022ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzarekin, hautaprobaren deialdia egitea, eranskinean zerrendatutako EKONOMISTA plaza betetzeko.

Bigarrena.- Deialdi hori arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onestea. Erabaki honi erantsi zaizkio, jasota gera daitezen.

Hirugarrena.- Agindua ematea oinarriak argitara daitezen oso-osorik *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean*, laburturik *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, eta GUFEn iragarki-taulan zein webgunean.

Laugarrena.- GUFeko gerentea gaitzea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman ditzan."

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-12-10
GUFEN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

